Prest! DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

224 zenbakia
2021 **maiatza**

Prest!

BERBETAN: **MAITE IGLESIAS eta ALEGRIA GONZALEZ** ARTIACHEKO GALLETA-EGILEAK

ERREPORTAJEA: **EUSKARAZ LASAI ARITZEKO GUNEAK** **BARKUA:** **2021EKO MIKROIPUIN UZTA**

TOKIKOM

221-222-224-223-

Sustatzailea

Berbaizu euskara elkartea

Babesleak

Intxixu kastola

Txantxiku .Deustuko Aisialdi Taldea.

erraldoien ondalan konpartsa

DEUSTO BIZIRIK Comercios, servicios y hostelería de Deusto

BIHOTZ ALAI FOLKLORE DANTZA TALDEA

ARRAVN TALDEA DEVSTV

ELORRI BERTSO ESKOLA

DEUSTUKO JAI BATZORDEA

S.D. DEUSTO

DEUSTUKO GAZTE LOKALA

zirikatzen!

eaj pnv deustu

EGUNSENTIA ESKAUT TALDEA 1982TIK

ernai Deustua

PARE HAUTSI DIRA GAIN KATEAK

DEUSTUKO GAZTE ASAMBLADA

Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkartea da edukiaren erantzule bakarra

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Bilbao

Babestu Prest! urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

Izen-abizenak .....
Helbidea .....
Telefonoa .....
E-posta .....
Kontu zenbakia (Iban) .....

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

224 zenbakia
2021eko maiatza

aurkibidea

Iker Basabe Mendizabal - Maider Zalbidea Pardo — **Iritzia** — 4

Garazi Ortega Vidales — **Gureak kanpoan** — 5

erreportajea
Euskaraz lasai aritzeko guneak

Deustualdeko Ikastetxeetan euskararen erabilera sustatzeko sortu ziren ikasleen Euskara Batzordeak. Deustuko Ikastolan eta San Inazioko institutuan DBH 3. eta 4. mailako ikasleek hartzen dute parte, eta Ibarrekolandan eta Botikazarren batxilergokoek. Batzordeetan egiten duten lanaz, parte hartzearen esperientziaz eta gazteen hizkuntza ohiturak aldatzearen zailtasunez aritu gara lau eskola hauetako hainbat batzordekideekin. — 6

Intxixu ikastola — **Eskolak** — 10

Errondoko, sustraiak sakonak dira — **Behin batean** — 12

Elkartasuna kamioietan — **Artikulua** — 14

berbetan
MAITE IGLESIAS eta ALEGRIA GONZALEZekin

Kantak dioen bezala, polita da Deustukoa izatea eta Erriberan bizitzea "itsasontziak eta galleterak pasatzen ikusteko". Maite Iglesias eta Alegria Gonzalez Artiach galletalantegian ibili ziren hamar urtez lanean eta haiek kontatutako oroitzapenetatik osatu dugu hilabete honetako elkarrizketa. — 16

Etxetxoa (2003) — **Irudiak berbetan** — 21

HEZKUNTZA Informazioa lantzen ikasten

LITERATURA 2021eko Mikroipuin uzta

PINTXODROMOA Tortillak eta tartak

KULTUR TXOTX Hodei Torres Fernandez eta Mikel Aiartzaguena Agirrebeitia

barkua bete berba — 24

Prest!

Argitaratzailea:
BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustu 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Jone Gartzia Gerra
Erredakzioa: Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Nerea Cubillo, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Ane Rotaetxe, Iker Basabe, Maider Zalbidea, Hodei Torres, Maddi Argote, Ane Zabala, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurraga
Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deustuko Eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Arangoitiko Eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea, Bilbotik Perura
Argazkiak: Ecuador Etxea
Publizitatea: Jone Gartzia Gerra
Diseinua: BO5T
Maketazioa: Laura Freijo Iglesia
Inprimategia: Antza
Ale kopurua: 2.800
Lege Gordailua: BI-571-01

Iker Basabe Mendizabal
Ikaslea deserrian

Lagun baten oihua

Aspaldiko lagun batek idatzi dit. Nahiz eta nahiko kontaktu erregularra dugun, denbora pasa da azkenekoz hitz egin genuenetik. Etsita dago, penatuta, nazkatuta. Kolonbian bizi da. Idatzi dit eskatzeko handik datozen berri txarrak zabal ditzagun. Gobernu eskuindar uribistaren estrategia autoritarioak ez du etenik eta azken asteotan gobernuak erabilitako indarkeria armatuak gora egin du (urteak daramatza gobernuak aurkari politikoak akabatzen). Nahiz eta berak PREST! irakurtzeko aukerarik ez duen, ez da plaza makala kolonbiarren oihua entzun dadin. Azken egunetako zifrak beldurgarriak dira, elite kolonbiarra, poliziaren indar leiala lagun, nahieran dabil: oposizioko militanteen akabatzeak, tirokatze indiskriminatuak…

Eduardo Galeanok aspaldi planteatu zuen galdera datorkit burura lagunak pasatutako bideoak ikusi ondoren: zilegi al da klase baten oparotasuna herrialde baten ongizatearekin nahastea? Galeanok argi zuen eta herrialde kolonbiarrak ere badu.

Besarkada estu bat zurekin hazi zen taldearen partez. Zuen borroka eredu da, kezkatuta entzuten ditugu berriak. Zaindu zaitez, JuanPa.

Maider Zalbidea Pardo
Pedagogiako ikaslea

Denbora

Zeinen azkar pasatzen den denbora gustuko ditugun gauzetan pasatzen dugunean eta zeinen astiro, kontrara, gustuko ez ditugun gauzetan ari garenean. Denborari buruz hausnartzen ibili naiz oraingoan, kontzeptu hain sinple batek konklusio konplexuetara eramateari buruz. Horretarako ere denbora hartu behar da.

Gauza asko entzuten ditugu gure egunerokotasunean honi buruz, gure bizitzetan erlojuaren orratzek aurrera egiten duten heinean. Abeslari askok ere bota dituzte denborari buruzko ideiak. “Denbora badoa eta ez da nahikoa”. Benetan ez dela nahikoa daukagun denbora? Gehiago beharko genuke?

Konfinamenduan, adibidez, denbora gelditu zela diote batzuek, galdu genuela beste askok… Nik ezetz esango nuke, aurretik egiten zenituen gauza asko ez zenituen egingo, baina beste zerbaitetan ibiliko zinen, ezta?

Gauzak bere denboran egin behar direla ere entzun izan dut. Gizarteak noiz egin behar diren zehaztu dituen gauza horiek. Eta sistematik ateratzen den oro arraroa dela sinetsarazi digute. Gaur egun, gurasoekin bizi den 30 urteko gazteak zer egiten du gurasoenean oraindik? Beharbada, arazoa izango da sistema eraikitzen ari direnek aldatu behar dena ikusteko denbora hartu ez dutela...

Hainbat eta hainbat ideia airean kontzeptu honi buruz. Inoiz ez dugu jakingo “non geratzen den denbora”, baina argi dago, “denbora dela poligrafo bakarra”.

Garazi Ortega Vidales

Jatorria: San Inazio
Bizitokia: Accra, Ghana
Lanbidea: Ingeniaria energia berriztagarrietako proiektuetan

“Nik ere ‘broken english’ hitz egiten dut, kamuflatzeko; askoz politagoa eta naturalagoa da”

2019ko urtarrilean heldu zen Garazi Ortega Accrara (Ghana). Aurretik Senegalen egon zen boluntario eta nazioartekotzearen inguruko master bat egin ostean Ghanara joatea erabaki zuen, mendebaldeko Afrika sakonago ezagutu guran. Azaldu digunez, zaila egin zaio dena nahi bezala azaltzea: “Ezinezkoa da bizitako esperientzia lerrootan azaltzea”.

Zertan egiten duzu lan?
Enpresa Turkiar baten nabil lanean. Bere egitekorik nabarmenena nekazaritzako lehengaiak erostea eta Turkiara esportatzea da. Bertan materiala transformatu egiten dute animalientzako pentsua lortzeko. Horrez gain, eguzki-energia eta biomasako proiektuak dauzkate Turkian beraien lantegiak hornitzeko. Ghanan hedatzea aukera ona da haientzat, elektrizitate kostua dala-eta; eta horretan nabil ni, energia berriztagarrien proiektuak koordinatzen.

Nolakoa da Ghanan bizitzea euskaldun batentzat?
Ba, egia esan, gustuko daukat, nahiz eta bakarra izan. Urte eta erdiz Astigarragako lagun bat neukan konplize eta euskaraz berba egitea plazer bat zen. Orain, gure herrialdean interesa duen jendearekin hitz egiten dut. Jatorria galdetzen didatenean “Basque Country” erantzuten dut, eta lehenengo erreakzioa “non dago hori? Herrialde bat da?” izaten da, eta sustraiak loratzen hasten dira.

Zer da gehien gustatzen zaizuna?
Oso ohikoa dela pentsatuko duzue, baina hemengo kultur aniztasuna izugarria da. Ez atzerriko jendeagatik, batez ere, herrialdean bertan milaka etnia ezberdin daudelako. Bakoitzak bere kultura, ohiturak, hizkuntza, janzkera, dantza... dauzka. Buruan edozer gauza eramateko duten gaitasunak harrituta nauka, eta josten ere hasi naiz, etxe aurreko jostunak dituen oihalen kolore deigarriez maiteminduta. Larunbat goizetan bere lantegira joaten naiz ikastera.

Zer gutxien?
Gauez oso goiz egiten dela. Ekuatorean gaudenez, 12 ordu argi eta 12 ordu ilun dira. Supermerkatuko barazkiak ez direla freskoak, eta inportatzen dituztenez Bilbon baino garestiagoak. Erlijioaren eragina oso nabarmena da. Domeketan herrialdeak ez dauka aktibitaterik, kaleak hutsik daude jende guztia elizan dagoelako egun osoan zehar. Errezatzeak dena hobetuko duela uste dute askotan.

Nola moldatzen zara hizkuntzarekin?
Ghana herrialde anglo-saxoia da. 50 hizkuntza daude, baina ohikoenak Akan, Ewe, Ga, Dagaare, Ashanti - Twi, Fanti eta Dagbani dira. Hala eta guztiz ere, gehienez ingelesez ere egiten dute, ‘broken enlgish’, deitzen dutena. Nik ere ‘broken english’ hitz egiten dut, kamuflatzeko; askoz politagoa eta naturalagoa da.

Nolakoa da bertako egoera sozial, politiko eta ekonomikoa?
Politikari dagokionez, Ghana mendebaldeko Afrikako herrialderik egonkorrena da. Botere trantsizio baketsua dauka duela 30 urtetik. Egoera ekonomikoaz ez da asko hitz egiten gobernuari ez zaiolako interesatzen, baina esan dezakedana da Ghanako ekonomia Afrikako egonkorrena eta inflazio gutxien daukana dela. Duen zorra kanpokoa da, eta petrolioarekin dago lotuta, baina ezin da energia erabiltzeari utzi. Ghanako merkatuaren %70a informala da, hau da, gizarte segurantza gabeko langileak, identifikatu gabeko biztanleak... Eta ez dugu ustelkeriari buruz berbarik egingo edonon egon dagoelako, baina Ghanan oso nabarmena da.

Eta osasun egoera?
Sistema-publikoa badago, baina ordaindu behar da. Edonon, tratatu baino lehen ordaindu beharko duzu. Behin lagun batek kotxe istripua izan zuen eta sudurra apurtu zuen. Odoletan, zorabiatuta eta mugitu ezinik heldu zen ospitalera, eta eskatu zioten lehenengo gauza bankuko datuak izan ziren. Ez baduzu dirurik ez dizute gasa bat ere ez ematen.

Zer duzu faltan?
Hasieran nire lehengo bizitza nuen faltan. Kaletik paseatzea izerditu gabe, leku publikoak (parkeak eta lorategiak), guk txikitatik barneratutako arauak errespetatzea (gidatzen batez ere), gure gastronomia maitea... Baina denborarekin ohitzen joan naiz.

Sarri bueltatzen zara Euskal Herrira?
Gustatuko litzaidakeena baino gutxiago. Pandemiarekin gauzak zailagoak eta garestiagoak dira. Nahiz eta aste baterako joan, 4 PCR test egin behar dira eta bakoitzak 100 euro balio ditu.

Ibarrekolanda BHI

EUSKARAZ LASAI ARITZEKO GUNEAK

Deustualdeko Ikastetxeetan euskararen erabilera sustatzeko sortu ziren ikasleen Euskara Batzordeak. Deustuko Ikastolan eta San Inazioko institutuan DBH 3. eta 4. mailako ikasleek hartzen dute parte, eta Ibarrekolandan eta Botikazarren batxilergokoek. Batzordeetan egiten duten lanaz, parte hartzearen esperientziaz eta gazteen hizkuntza ohiturak aldatzearen zailtasunez aritu gara lau eskola hauetako hainbat batzordekideekin.

Testua: PREST! **Argazkiak:** Euskara Batzordeak

San Inazio BHIko 3. mailako Ainara Uriarterekin eta Ander Molpeceresekin, Deustuko Ikastolako 4. mailako Nahikari Iglesiasekin, Botikazar BHIko batxilergoko 1. mailako Garazi Irizarrekin eta Ibarrekolanda BHIko batxilergoko 1. mailako Libe Diaz de Argandoñarekin solastatu gara maiatzeko erreportajea ontzeko. Euskara Batzordeetako kideak dira bostak. Batzordeok Berbaizu Euskara Elkarteak dinamizatutako 'Deustuko Ikastetxeak arnasgune bihurtzeko bidean' proiektuaren parte dira. Egitasmoak Deustualdeko Ikastetxeetan gazteen artean euskara bultzatzea du xede eta, horretarako, baliabideak eta egiturak sortzen ditu. Bilboko Udalaren finantzaketak lagunduta, koordinatzaile bat arduratzen da ikastetxeotan taldeak dinamizatzeaz.

Deustualdeko bigarren hezkuntzako eskola publiko guztietan dago Euskara Batzorde bana. Lau urteko ibilbide laburra izanagatik, ez da gutxi tarte honetan dutena. Zentro bakoitzean bada ikasle talde bat inguruan euskara sustatzeko asmoz biltzen dena eta euskara doan tokira eramaten duena.

Hizkuntza ohiturak aldatzen erronka handia daukate, batez ere DBHko ikasleek. Betiko lagunekin elkartzen dira klasean, eta kasu askotan elkarrekin gaztelaniaz hitz egiteko ohitura

daukate. Horri buelta ematea ez da lan makala. San Inazioko eta Deustuko Euskara Batzordeetan batez ere jolasak egiten dituzte, eta partaideek eredu izan nahi dute ingurukoak euskarara gerturatzeji. San Inazio Institutuko 3. mailan daude Ainara Uriarte eta Ander Molpeceres, eta "lagunartean euskara sustatzea" dute helburu, eremu formaletik harago.

"Ez dugu bilatzen mundu guztiak euskaraz hitz egitea, -diosku Ainara Uriartek- baina, behintzat, euskaraz lasai hitz egiteko aukera izatea eta euskaraz aritzeagatik baztertuak ez izatea nahi dugu". "Batzuetan arraro begiratzen digute klasetik kanpo euskaraz hitz egiteagatik", gaineratu du Molpeceresek. Bide horretan, "Euskara Batzordea euskaraz lasai aritzeko leku bat" dela argitu digu Uriartek.

Deustuko Ikastolako 4. mailako Nahikari Iglesiasek antzeko guraria du: "Gustatuko litzaidake jendeak euskara gustuz hitz egitea, ez eskolan behartzen dutelako. Uste dut jendeak gehiago balioetsi behar duela euskara, gure hizkuntza delako eta ez dugulako galtzerik nahi".

Batxilergokoen kasuan errazagoa izan ohi da hizkuntza ohiturak aldatzea, klasekideekin lehen harremanak bertan egiten dituztelako, eta ondorioz, lehen hitza euskaraz egitea errazagoa izaten da. Horrela azaldu digu Botikazar Institutuko Garazi Irizarrek: "DBHn betiko lagunak ginen eta ohituta geunden gaztelaniara jotzera, baina, Batxilergoan ez genuenez elkar ezagutzen harremana hasieratik euskaraz sortzea errazagoa izan da". Gainera, aurten Euskaraldia ikasturte hasieran izan da, eta eragina asko nabari dute Botikazar eta Ibarrekolandako Institutuetan. "Nik Euskaraldian izugarrizko aldaketa nabaritu nuen, batez ere nire kuadrillan. Gero eragina ahultzen joan da", zehaztu digu Libe Diaz de Argandoñak.

Alta, Botikazarren eta Ibarrekolandan ere zailtasunak izaten dituzte euskal hiztunak aktibatzeko. Liberen arabera, "oso zaila da, baina bi pertsonaren artean harremana euskaraz eraikiz gero, ingurukoek jarraitzea errazagoa da". Garazi Irizar bat dator bere adierazpenekin, baina uste du "ingurukoen jarrera positiboa oso garrantzitsua" dela, "bestela oso zaila da hautuari eustea".

Euskararentzako mugarik ez

Orokorrean, galdekatutako ikasle guztiak "oso pozik" daude Batzordean egindako

"Gustatuko litzaidake jendeak euskara gustuz hitz egitea, ez eskolan behartzen dutelako"

Botikazar 2019ko Korrikaren hasieran, Garesen

"Bi pertsonaren artean harremana euskaraz eraikiz gero, ingurukoek jarraitzea errazagoa da"

lanarekin eta bizitako esperientziarekin. Ikasturtearen balorazio oso positiboa egin dute denek. "Oso ondo pasatu dut Euskara Batzordean –diosku Nahikari Iglesiasek-, gauza desberdin bat da". Aipatu behar da, Deustuko Ikastolan trabak izan dituztela aurten ekintzak antolatzeko, Covidaren aurkako neurriek beste ikastetxeetan baino gehiago mugatu baitituzte bertako ikasleak. Eskola barruan Korrika antolatzekoak ziren, baina, osasun neurriak zirela-eta, ezin izan zuten egin, eta horrek taldea nabarmen ahuldu zuen, astelehenero batzeari utzi zioten arte.

San Inazio Institutuan, ordea, gauza gehiago egiteko aukera izan dute. Ikasturtean zehar jolasak egin dituzte asteartero batzordekideen artean. Ikastetxeko gela handiena denez, liburutegian elkartu dira, eta leihoak zabalik eta launaka aritu behar izan dira. Horrez gain, institutuan urtero ospatzen den Kultur Astearen baitan Kultur Ekitaldia prestatu ahal izan dute. Haiek proposatuta, euskal kulturarekin lotutako pertsonaien desfilea antolatu zuten.

"Ezin izan dugu gauza askorik egin Covidagatik, baina egin genezakeena egin dugu", argitu digute saninazioztarrek. Datorren urtera begira jarri dira dagoeneko, eta ez dituzte ideiak faltan. Ahozkotasuna lantzeko irratsaio bat egiteko asmoa dute. Irakasleak elkarrizketatzea gustatuko litzaieke, lagunarteko espazio atsegin batean sakonago ezagutzeko.

Bestalde, Ibarrekolanda eta Botikazar institutuetan etenik gabe antolatu dituzte ekintzak. Ikasturte hasieran txango bat egin zuten Gasteizera Ibarrekolandakoek, Errekaleor Auzo Askea eta Ohianeder Euskararen Etxea ezagutzeko. Botikazarreko

San Inazio BHI

EGUNEKO KANPAMENTUAK - UDA 2021

NON?
Antzasti Museoan, Artaun auzoan, Diman
NOIZ?
Uztailak 5-9 / Uztailak 12-16 / Uztailak 19-23 / Uztailak 26-30
TALDEAK
Talde murriztiak: 6 ume taldeka + hezitzailea
ADINA
6-11 urte
PREZIOA
150€/astea + 10€ autobusa
DESKONTUTA
%5 bigarren anai-arrebarekin edo lagunarekin

HIZKUNTZA
Jarduera guztiak euskaraz izango dira. Egunero jolas saio bat egingo da irakasle ingelesarekin.
EKINTZAK
Eskulanak, joku zaharrak, sukaldaritza, solo lanak, lorezaintza eta txangoak. Ekintza guztiak kanpoan egingo dira.
AUTOBUSA BILBOTIK
Irteera 08:45 / Helduera 14:15

Informazio + : https://www.antzasti.eus/eguneko-kanpamentuak-2021/

ikasleak, ordea, ezin izan ziren Gasteizera joan, mugak itxi zituztelako joatekoak zirenean, eta horrek taldean eragin diela uste du Garazik: “Nik uste dut horrek eragin digula, ez garelako oso talde elkartua izan. Hasieran kide asko ginen eta orain 5-6 pertsona baino ez gara. Gauza batzuk egin ditugu baina gehiago egin genitzakeela uste dut”.

Egindakoen artean daude Euskaraldiaren inguruko informazioa eta txapak banatzea eta Euskararen Eguneko ekitaldia antolatzea. Korrika izan beharko litzatekeen egunetan ikasgelaka 60 kilometro inguru egin zituzten korrika jolastokian bueltaka, Ibarrekolandan egin zuten bezalaxe. Bi ikastetxeen artean 130 kilometro bete zituzten nork bere eskolako patioan. Ibarrekolandan, gainera, Korrika bi ikasgelaka egin zuten: batak korri egiten zuen bitartean, bestea mintzodromoan ari zen. “Oso ondo pasatu genuen”, laburtu digu eguna Libe Diaz de Argandoñak. Ibarrekolandako ikasleak, gainera, Euskaraldian DBHko taldeetatik pasatu ziren Mihiluze lehiaketak egiten.

Ikasturteari areto-futbol eta boleibol txapelketa banarekin eman diote amaiera Ibarrekolandan eta Botikazarren. Parte hartzeko baldintza bakarra euskaraz hitz egitea izan da. Hurrengo ikasturtera begira, kirolarekin lotutako ekintza gehiago egin nahi dituzte, euskara zabaltzeko.

Orokorrean, ikastetxeetako Euskara Batzordeen artean ez dute elkar ezagutzen. Hurrengo ikasturtean harreman hori osatzen eta trinkotzen saiatuko dira, behintzat Ibarrekolandaren eta Botikazarren artean. Dagoeneko egin dute lehen ahalegina: egun bat hartu zuten elkarrekin egoteko eta iritziak partekatzeko. Goizean euskararen inguruan eztabaidatzeko jolas batzuk egin zituzten, eta gero denek elkarrekin bazkaldu zuten Deustuko Herriko Tabernan.

Hurrengo ikasturtean Ozen dinamikarekin bete nahi dute helburu hori. Ozenek euskararen eskubideen urraketak salatzea eta paisaia linguistikoa ondo euskaratzeko tresnak sortzea du helburu. Modu honetan, Deustuko kaleetara zabaldu nahi dute eskoletan egiten duten lana, “ez bakarrik herria euskalduntzeko nahian, baita gizartean aurkitzen ditugun eskubide urraketak salatzeko, komertzioak euskalduntzeko edo ganorazko elebitasun bat edukitzeko”, irakur daiteke Euskara Batzordeen webgunean.

Ozen 2020ko inauterietan

EUSKAL ALIEN NAZIOA
Ihes-gela
www.euskararenetxea.eus
Euskararen Etxea
Agoitz plaza 1 48015 Bilbo, Bizkaia.
Tel.: 94 402 80 81
E-posta: info@euskararenetxea.eus
Metroa: San Ignazio > Lekeitio Irteera.

MONGOLIATIK EUSKAL HERRIRA

Mongoliatik etorri zaigu aurten Tuguldur gaztetxoa Intxixu ikastolara, 2.mailara. Aitak eta berak prestatu dute eta guk zuei eskaini nahi dizuegu euskaraz.

Testua: Intxixu Ikastola

ГАНТУЛГА-ЫН ТӨГӨЛДӨР-Н ТУХАЙ ТОВЧХОН (Tuguldurri buruzko laburpena)

Намайг Төгөлдөр гэдэг, би 7 настай. Би Монгол Улсын нийслэл Улаанбаатар хотоос ирсэн. Одоо Испани улсын Билбао хотод аав ээж дүүтэйгээ ам бүл дөрвүүлээ амьдардаг.

Tuguldur deitzen naiz, zazpi urte ditut. Mongoliako Ulan Bator hiriburukoa naiz. Orain Bilbon bizi naiz, nire gurasoekin eta nire arrebarekin.

Mongolian, etxabere asko daude, adibidez, zaldiak, behiak, ardiak eta gameluak. Baina XIII. mendetik, zaldiak oso garrantzitsuak dira. Gamelua ere oso animalia inportantea da.

Mongolian bi jai nagusi eta ospetsu daude:

1. **Naadam jaialdia**, uztailean ospatzen dena. Hiru kirol mota daude: borroka, arku jaurtiketa eta zaldi lasterketak.

Mongoliar borrokalariak

Zaldi lasterketa. Normalean, zaldunak 7 eta 10 urte bitarteko umeak izaten dira.

2. **Ilargi-urte berriko jaialdia.** Udaberriko lehen hilabetean jende nomadak negu gorria, -40 graduko tenperaturekin, gainditu duela ospatzen du.

Arku jaurtiketa

Mongoliako arropa tradizionalak mota askotakoak dira, baina ondorengoak dira jendeak jaietan gehien janzten dituenak.

Mongoliako janari tipikoak

Hau Buuz deitzen da. Barruan behi okela dauka eta oso mamitsua eta gozoa da. Lurrunetan sukaldatzen da.

Beste hau Khuushuur deitzen da. Lehengoa baino zapalagoa da eta honek ere barruan behi okela dauka. Oso gozoa da eta frijitzen da.

ERRONDOKO, SUSTRAIAK SAKONAK DIRA

Lau urte dira Errondoko auzo etxearen proiektua abian jarri zutela, hamazazpi urte hutsik zeramatzan supermerkatuari eta Ibarrekolanda eta Tellaetxeri [San Ignaziori] bizia emateko. Gazte bulkada izan arren, sustrai zaharrak, sakonak nahi ditu, izenak berak salatzen duenez.

Testua: Hektor Ortega

Errondoko baserria. 1936ko gerra baino lehen erre ei zen, baina berriro altxatu zuten. Argazkia: Txema Luzuriagaren bilduma.

Azkenaldion Bilbo eta albo-herrietan okupatutako lokaletako batzuk historiari erreparatu diote izena hautatzeko orduan. Uribarrin 2012an okupatu zuten espazioari Patakon izena jarri zioten. Auzoari zabaldutako eremu gisa nahi zuten eta horretarako zer hoberik Matiko aldean ehun urte arinago ospe handia hartu zuen Patakon txakolindegiaren izena suspertzea baino? Are gehiago, jakinda Patakon izena zor ziola tabernako familiari, Larrabetzutik etorritako Madariagatarrei alegia, Patakon bidelapur eskuzabal ospetsuaren senideak eta ezizenaren oinordekoak. Bai, Patakon hura: Patakon, Patakon, dekonari kendu, ez dekonari emon.

2017an gazte ekimen batek Navarro Villoslada kaleko lokal bat okupatu zuen autogestioaren bidez auzoari bizitza emateko. Izena ere jarri zioten espazio berriari: Errondoko. Leku-izena zen, apur bat lehenago 1960ko hamarkadara arte iraun zuen baserri baten izena, alegia. Lokal okupatutik hurbil zegoen. Baina, zer dakigu Errondoko historikoaz? Eman ditzagun lau zertzelada baserri honen gainean.

Lehenengo, zehaztu dezagun non zegoen: gaur egungo Mediterraneo Itsasoa kalean, EHUko ikasle egoitzaren atzealdean. 1945

urtera arte, Ibarrekolandatik Larrakotorrera joaten zen estrataren alboan zegoen.

Etxagunak eta handikiak

Errondoko XVII. mendean aurkitu dugu lehenengoz agirietan. Sasoi hartan familia etxagun baten esku zegoen, baina, Deustuko beste asko bezala, handik lasterrera galdu zuten, zorren ondorioz. Aspaldi baten (PREST! 21) kontatu genuen bezala, Valentin Morgan irlandar merkatariak metatutako dirutzaz jabego andana erosi zuten bere testamentuaren kudeatzaileek eta maiorazkoa sortu: besteak beste, Deustuko Torrontegi, Busturia eta 'Herandekoa' baserriak eskuratu zituzten. Gainera, ibaitik hurbil ogen (herri-lur) zabalak erosi zizkioten Deustuko herriari eta bertan Valentinen deitura izentzat hartu zuen baserria eraiki zuten: Morgan. Sasoi hartan merkataritzaren etekinak lursailak eta baserriak erostera bideratzen zituzten estatus sozialean gora egin nahi zuten burges aberatsek.

'Herandekoa' hura gure Errondoko da. Historian izen dantza txiki bat jaso dugu: Herandekoa, Errandokoa, Errondoko... Kontua da Morgan maiorazko berria Valentinen alaba Josefa Manuelarentzat gelditu zela. Irlandarraren alabak ez zuen edonor ezkondu, Antonio Salazar de Muñatones Mazarredo hartu baitzuen senartzat. Jaun feudal harroen ondorengoa zen hura, Muñatones gazteluko eta Butroeko ahaide nagusien leinuko askazia. Bikote honen ondorengoa (iloba) izan zen Jose Domingo Mazarredo bilbotar almirante ospetsua, zumarkalea daukana Albia aldean.

Mazarredotarrak 250 urtez izan ziren Errondokoren jabe. Baina, jakina, handiki haiek inoiz ez ziren bertan bizi izan. Errondokon maizterrak bizi izan ziren, belaunez belaun, batez ere bertako mahastiak zaintzen eta hazten eta ugazabei errenta zintzo ordaintzen.

Txakolina eta zinema

Txema Juanesek jasotako ahozko tradizioaren arabera, Errondoko 1936ko gerra baino lehen erre egin zen. Ostean, atzera altxatu zuten baina pisu batez barik pisu bi eta kamaraz (ganbara) eraiki zuten. Teilatua ur bitara zeukan.

Hurrengo datuok ere Txema Juanesi (www.ibarrekolandatarrak.org) zor dizkiogu. Gerra ostean, gerra aurretik bezala, denboraldiko txakolindegi ospetsua izan zen. Beheko solairuan dolarea eta txakolindegia zeukan. Jose Basterretxea eta Lucila Sertutxa izan ziren bertako maizterrak hainbeste urtez. 1940tik aurrera Mazarredotarrak soloak eta arloak salduz joan ziren harik eta 1960ko hamarkadan baserria bera ere desagertu zen arte.

Azken urte haietan Errondokok itxura bitxia zeukan: etxearen atzealdean bertan Banderas zinema aretoaren eraikin handia eduki zuen, ia baserriari atxikita. Horrela daukate gomutan oraindik ere Tellaetxe eta Ibarrekolandako askok. Eta, bistan da, duela mende erdi desagertu zen, baina Errondoko ez zaigu ahaztu.

Kalderapeko
euskal kultur gunea
www.kalderapeko.com
txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

EUROPA AHO ZABALIK UTZI DUEN GAZTEA

Europa mailako Anna Amelia gitarra lehiaketa ospetsua irabazi berri du Markel Intxaurbe Onaindiak. Berria jakin bezain laster, Juan Crisóstomo de Arriaga kontserbatoriora gerturatu gara Markelekin eta bere irakasle Jesus Melchorrekin hitz egitera. Pozik eta harro hartu gaituzte biek.

Testua eta argazkiak: Jone Gartzia Gerra

Erronka moduan hartu zuen Markel Intxaurbek Alemaniako Anna Amelia gitarra lehiaketan parte hartzea. Jesus Melchor irakasleak xaxatu zuen, nazioarteko lehiaketa bat nolakoa zen ezagutu zezan, eta zailtasunen aurrean nekez kikiltzen denez, desafioa onartu egin zuen 13 urteko gazteak.

Hala, hilabetean prestatu zituzten txapelketara aurkeztu beharreko hiru kantuak. Garai eta estilo desberdineko hiru pieza jo zituen Markelek: XIX. mendeko *Variaciones*, Mauro Giulianirena; XX. mende hasierako *La catedral*, Agustin Barrios paraguaitarrarena; eta gaur egungo *Paisaje Cubano con fiesta*, Leo Browerrena. Obra nahiko zailak dira horren denbora gutxian ikasteko, baina Intxaurberentzat ez dira oztopo izan. Irakasleak berak aitortu digunaren arabera, erraz ikasten du. “Berezko gaitasuna dauka, behin gauza bat eginda ez du hamaika aldiz errepikatu behar ondo ikasteko, eta horrek asko errazten du ikasketa prozesua”, diosku.

Beste hainbat lehiaketaren gisan, Alemaniako Weimar eskualdean ospatu behar zen ekitaldia online antolatu dute aurten. Alde onak eta txarrak ekarri ditu horrek. Horri esker parte hartu ahal izan zuen Markel Intxaurbek, baina baita beste hainbatek ere, eta lehiakortasuna nabarmen handitu da. Piezak aurrez grabatuta bidali behar direnez, musikari bakoitzak bere onena erakusteko aukera du, baina, aldi berean, “zuzenekoak ematen duen indarra galtzen da”, Melchorren hitzetan.

Markelek dio bere adierazkortasuna saritu duela epaimahaiak: “Ez dut oso azkar jotzen, baina uste dut jotzen dudanean transmititzen dudala eta horregatik eman didatela saria”. Bere irakasleak ere, oso lasaia dela dio: “Ez da batere lotsatzen, taula gainean etxean bezala egoten da”.

Erronkaz erronka

Egunero gitarra ordubetez jotzen saiatzen da Markel, baina badaki Melchor irakaslearentzako ez dela inoiz nahikoa izango. “Bere adinarekin oso ona da, baina 17 urterekin maila berdindu egiten da, eskola amaitu eta ikasketa profesionalak hasten dituztelako askok. Orain eskolarekin ez dauka denbora askorik, baina entseatuz gero, daukan mailarekin nahi duen lekura hel daiteke”, zehaztu du.

Gitarra irakasle izatea da Markelen ametsa. Taula gainean eroso egoten da, baina irakasle izan nahi du “presiorik gabe” egotea nahiago duelako. Orain lau urte hasi zen instrumentua jotzen, 9 urterekin, “lagunak musika eskolan hasi zirelako”. Hiru musika-tresna aukeratu behar zituen eta horietako bat izan zen gitarra, baina, Markelek berak argitu digun bezala, pianoa tokatu ahal zitzaion gitarraren ordez eta orain ez litzateke dagoen lekuan egongo.

Sariak ikasten jarraitzeko motibazioa eman dio, eta ez die erronka berriei heltzeari utzi. Maiatzean bertan Logroñoko lehiaketa batean aurkeztu du beste lan bat, eta udan Alacantera joango da Petrer txapelketan parte hartzera.

Markel Intxaurbe gitarra-klasean

ELKARTASUNA KAMIOIETAN

Paka Nuga elkarteko kideek jantziak, askotariko materiala eta janaria jasotzen dute Burkina Fasora eramateko. Ez dute egoitzarik, eta lan guztia boluntarioa da. Hilabete luze daramate Sarrikoalde plazako 1, 2 eta 3 zenbakietan dagoen lonja batean materiala biltzen, ekaina hasieran bi edukiontzi bidaltzeko Burkina Fasora. Elkarteko sortzaile den Mertxe Chaconekin egon gara bilketa nola doan jakiteko.

Testua: PREST! **Argazkiak:** Paka Nuga

Behar dutenei lagunduz pozik bizi da Mertxe Chacon. Bizitzan une txar bat igaro ostean, Burkina Fasora joan zen boluntario duela bost urte. Hunkitu egiten da unea gogora ekartzean. Bidai hartatik bere bizitza goitik behera aldatu da, bai eta bidean ezagutu dituen ehunka pertsonenak ere. Izan ere, geroztik urtero bueltatu da Burkina Fasora.

Bidaietako batean Bartzelonatik Burkina Fasora dohaintzak eramaten dituen Madi ezagutu zuen, eta bien artean Bilbon bilketa bat egitea erabaki zuen. Hasierako asmoa Bilbon bildutakoa furgoneta batean Bartzelonara eramatea zen. Orduan ez zekiten bi kontainer oso-osorik beteko zituztela aste gutxi batzuetan. 80 tona arropa, material eta janari bidali zituzten 2019ko martxoan. Gerora hirugarren bat bidali zuten, Gabonetan, eta orain beste bi betetzen ari dira.

'Eskua zabalik'

Horrela sortu zen Paka Nuga, lehenengo bidalketa horretan ezagututako jendearekin. Zortzi lagunek kudeatzen dute elkartea, baina inguruan hamaika pertsona dituzte, Burkina Fason laguntza behar den aldiro erantzuten dutenak. Mossien more hizkuntzan Paka Nuga-k 'eskua zabalik' esan nahi du.

Egitasmoaren oihartzunak zeharo harritu du Mertxe. Lehengo bi edukiontziak penintsula osoan biral egin zen audio bati esker bete zituzten. Urrunetik ere deitzen zioten laguntza eman nahian. Oraindik ere kostatu

egiten zaio sinestea bere mezuek hainbeste jende mugitzen dutenik.

Denetarik jasotzen dute: jaki ez galkorrak, jantziak, gurpil-aulkiak, telefonoak, bizikletak, jostailuak, eskola materiala, material medikoa... eta dirua. Izan ere, horrelako edukiontziak Bilbotik Burkina Fasora eramatea ez da lan erraza ez merkea. Ibarrekolandako biltegia ere utzitakoa da. Norbanakoekin eta enpresa txikiekin oso eskertuta dago Mertxe, ez horrenbeste banketxe eta enpresa handiekin, eskatuta ere ez dietelako apenas ezer ematen.

Maiatzaren 22an beteko dute lehen kontainerra, eta ekainaren 5ean bigarrena. Edukiontziak Bilboko portura eramaten dituzte, eta handik Loméra (Togo), Burkina Fasok ez baitauka kostalderik. Ia bi hilabete ematen dituzte Loméko portura heldu arte, eta handik kamioietan eramaten dituzte Burkina Fasora. Han Madik jasotzen ditu eta bertan banatu.

Bertoko proiektuak ere laguntzen dituzte Paka Nugaren bitartez. Bi emakumeri babesa, laguntza ekonomikoa eta materiala ematen diote: Clarisse Ilboudori, euren familiak abandonatutako eta arbuiatutako emakume gazteak laguntzen dituena; eta Fatimatari, haur umezurtzak laguntzen dituena. Iparraldeko errefuxiatu-eremuetara, desgaitasuna duten haurrak zaintzen dituen elkarte batera eta abandonatutako emakumeen egoitza batera ere bidaltzen dute laguntza.

Informazio gehiagorako pakanuga.org helbidean eta Instagramen aurkituko dituzue.

berbetan

MAITE IGLESIAS eta ALEGRIA GONZALEZekin

Artiacheko galleta-egileak

“Ez genuen fabrika

Kantak dioen bezala, polita da Deustukoa izatea eta Erriberan bizitzea “itsasontziak eta galleterak pasatzen ikusteko”. Maite Iglesias eta Alegria Gonzalez Artiach galleta-lantegian ibili ziren hamar urtez lanean eta haiek kontatutako oroitzapenetatik osatu dugu hilabete honetako elkarrizketa.

Testua: Nerea Cubillo Urkizu
Argazkiak: Ecuador Etxea

tokiz mugitzerik nahi”

Nola gogoratzen duzue galleta-egile lana?
Maite: Orokorrean, ditudan oroitzapenak onak dira. Lanera etorri behar izaten genuenean lanaz nekatuta geundela esaten genuen, baina suposatzen dut adinaren kontuak zirela, orain bizitzako momentu polit bezala oroitzen dudalako.

Alegria: Egun txarrak bazeuden ere, ni ere oso pozik etortzen nintzen lanera. Gainera, lantegian lagun asko egin genituen eta ia lau hamarkadaren ostean oraindik harremana mantentzen dugula ikustea oso pozgarria da. Hitzarmenak adostu behar genituenean gatazka txikiak sortzen ziren gure artean, baina, orokorrean, laneko giroa ona zen.

Zenbat langile zineten?
A: 1983ko abuztuko uholdeak arte, 1000 langile inguru geunden. Uholdeen ostean fabrika Orozkora mugitu zuten eta egun bertan jarraitzen du. Dohaintza ekonomiko edo erretiro aurreratu baten truke langileei lana uzteko aukera eman zieten. Asko izan ziren hobari hori onartu zutenak, eta nolabait onuragarria izan zen lanean geratu nahi izan genuenontzako.

M: Uholdeen ostean, hasiera batean lantegia Madrilera mugitzeko asmoa agertu zuen zuzendaritzak. Gogoan daukat oso larrituta ibili ginela, gure lanpostuak galtzeko beldur ginelako. Nik neuk dohaintza ekonomikoa hartu eta lana aldatzeko aukera izan nuen.

Lantokiaren kokapena kontuan hartuta, nolako eragina izan zuten 83ko uholdeek?
M: Makina eta salgai asko galdu ziren, batez ere beheko solairuan zeudenak. Hasiera batean lantegia Madrilera eraman nahi zuten eta orduan greba egin genuen.

A: Nik gogoan daukat oporretan nengoela eta itzuli behar izan nintzela. Hilabete batzuk igaro ziren Erriberako lantegia behingoz itxi zuten arte. Gure saila izan zen Orozkora mugitu zuten azkena.

Beste grebarik egin zenuten?
A: Lantokian egin zen greba handienetakoa 1975. urtekoa izan zen, baina gu oraindik ez geunden bertan lanean. Langile asko kaleratu zituzten greba egiteagatik, baita arduradun sindikalak ere, momentu hartan debekatuta zegoelako.

M: Guk ere greba bat egin genuen; soldaten igoera eta baldintza duinagoak aldarrikatu genituen lantokia Orozkora mugituko zutela esan zigutenean. Gogoan daukat lo eta guzti egin genuela hemen, hemendik ezer eraman ez zezaten eta inor kaleratu ez zezaten. Orokorrean, ez genuen fabrika tokiz mugitzerik nahi.

Nongoak ziren langileak?
M: Jende gehiena Bilbo eta inguruko he-

“Makina eta salgai asko galdu ziren urte horretako uholdeen ondorioz, batez ere beheko solairuan zeudenak”

MAITE IGLESIAS eta ALEGRIA GONZALEZekin

▷ ▷ SAKONEAN

"Lehen orain baino gaileta mota gehiago fabrikatzen ziren"

Zenbat denbora egon zineten fabrikan lanean?
M: Ni 1976. urtean sartu nintzen lanera, eta Orozkora mugitu zuten arte bertan izan nintzen.

A: Ni ere 1976. urte inguruan hasi nintzen eta 2016an aurretiko erretiroa eman zidaten. 2018ra arte izan nintzen bertan.

Zein zen zuen sailik gogokoena?
M: Denok joan nahi genuen Alegriaren atalera lanera. Oso langile gutxi elkartzen ziren bertan eta familia bat zirudien. Makina gutxi zegoenez, bertako langileak jendearekin harremanetan egoten ziren etengabe.

A: Maiteri gaileta labera sartu aurretik zegoen atalean egotea gustatzen zitzaion, bertan gailetari forma ematen zioten. Horrez gain, bizkotxoa moldeetan sartzen edota Craker gaileta egiten ibiltzen zen.

Zuen etxean ez da Artiach gailetarik faltako…
A: Noski ezetz! Orozkon denbora asko eman nuen dinosauro forma duten gaileten makinan lanean. Oso gogoko ditut gaileta horiek eta etxeko armairuan ez da inoiz halakorik falta.

M: Ni ere oso gozozalea naiz. Hala ere, lehen orain baino gaileta mota gehiago fabrikatzen zirela esango nuke. 'Artinata' gaileta mota gehiago zeuden, limoizkoak, turroizkoak edota hurrezkoak.

rrietatik zetorren; Ezkerraldetik eta Basauri eta Arrigorriagatik.

A: Baita urrunagotik ere. Getxo eta Bakioko langileren bat ere bazegoen, baina gehienak Bilboko auzoetakoak ginen. Orozkoko inguruetatik ere jendea etortzen hasi zen Erriberatik alde egin genuenean.

Ez zineten Erriberan bizi. Nola etortzen zineten?
M: Lanean lauzpabost urte eman ondoren, bigarren eskuko auto bat erosi nuen. Garai hartan Euskalduna zubia oraindik eraiki gabe zegoen eta Deustuko Zubia zeharkatu behar izaten nuen. Euskaldunako lantegia oraindik martxan zegoenez, askotan zubia zabalik topatzen genuen, eta berriz itxi arte itxaron behar izaten genuen.

A: Ni oinez etortzen nintzen. Basurtuko ospitaleko aldapa jaitsi eta Olabeagatik Erriberara gurutzatzeko botea erabiltzen nuen, langile askok bezala. Oso estututa etortzen ginen!

Artiachen lan egiteko eskakizun berezirik zegoen?
M: Gutxi. Lan elkarrizketan norberaren datuekin osatu beharreko paper bat ematen zizuten, egungo Curriculuma balitz bezala. Paper hori bete eta gero, idazketa maila ezagutzeko idazlan labur bat egin behar izan nuen, baita gehiketa, kenketa, biderketa eta zatiketa bana ere. Paper hori entregatu eta hurrengo egunean lanean hasi nintzen.

A: Nik berdina egin behar izan nuen. Sarrera zein zen ere ez ziguten azaldu! Baina, asko ginen bide beretik etortzen ginenak eta ez nuen arazorik izan. Manifestazio bat zirudien!

Ez zen espazio txikia. Lantegiko zein sailetan ibili zineten?
M: Atal ezberdinetan ibili ginen biok, baina gure saileko tresnaren bat ez zebilenean beste atal batera bidaltzen gintuzten, inoiz ez zen lanik falta. Hasieran, biltegian sartu ninduten eta hortik etiketatzeko atalera joan nintzen. Gaileten kutxak egin, iraungitze data eskuz jarri, etiketak itsatsi… lan hori egun makinek egiten dute. Produzitu beharrekoa baino zertxobait gehiago produzitzen genuenez, batzuetan hobari handiagoa jasotzen genuen, destajuaren arabera jasotzen baikenuen soldata.

A: Ni, batez ere, lehengaien prestakuntzan egon nintzen. Horrek bazuen bere alde txarra, lehengai guztiekin kontaktuan geundelako, irinarekin eta izoztuta zetorren arrautzarekin besteak beste, eta kirats handia zegoen.

Antzeko ordutegiak zenituzten?
A: Ni ohiko ordutegian nengoen. Goizeko zortzietatik arratsaldeko bostak arte. Jaiegunen bat hartzeko edota galdutako orduren bat berreskuratzeko, arratsaldeko 17:00etatik aurrera lanean jarraitzeko aukera ematen ziguten.

M: Alegriak ez bezala, nik txandaka egiten nuen lan. Astearen arabera goizez edo arratsaldez nengoen. Gauetan lan egiten zuten langileak finkoak ziren, beti ordutegi berdina baitzeukaten.

Kutxaren bat etxera eramateko aukera zenuten?
M: Normalean, ez. Gabonetan 'opari' bezala kutxa bat ematen ziguten langile bakoitzari. Lantokian ere, denda txiki bat zegoen, egindako gailetak bertan saltzen zituzten eta merkeagoak ziren.

A: Dena den, hilean behin letrak mugituta edo zertxobait apurtuta ateratzen ziren gailetekin poltsatxoak egiten genituen; adibidez, 'Artinata' zen gehien apurtzen zena, barkilloz eginda zegoelako. Horiek erosteko aukera ematen ziguten, pezeta bat edo bitan.

Galletaren bat jaten zenuten lanean zeundeten bitartean?
M: Artinata gailetaren barkilloa askotan apurtzen zen, zati horiek jaten genituen batez ere.
A: Dena den, ez pentsa jateko aukera askorik geneukanik. Gailetaren bat apurtzen zenean edo poltsa batean sartu eta langileei saltzen zitzaien edo dena txikitu eta birziklatu egiten zen.

Alegria, zu Deustuko Erriberatik Orozkoko lantokira joan zinen. Zein aldaketa ikusi dituzu?
A: Lehen eskuz egiten genituen lan asko egun makinek egiten dituzte. Orain, ordenagailu batzuetara konektatuta dauden makinek egiten dute lan gehiena. Ordenagailuak bota beharreko lehengai kopurua bidaltzen dio makinari eta honek egiten du. Lehen lan hori eskuz egiten genuen. Olio mota ere aldatu dute, palma olioa kendu eta ekilore-olioa erabiltzen da gaur egun. Langile asko kaleratu zituzten arren, produkzioa asko igo zen lantegia Erriberatik Orozkora lekualdatu zutenean eta hori makinen produkzioaren eraginez izan zen.

M: Azukrerik gabeko gaileta ere kontu berrienetarikoa da. Azukrerik gabeko goxokiei orain hauts moduko batzuk botatzen zaizkie.

Udalak Galleteras izena jartzeko asmoa du Zorrotzaurreko kale berri bati. Zer deritzozue?
M: Nik ilusio handiz hartu dut albistea eta eskerrak eman nahi dizkiot proposamena egin duenari, oso pozgarria da guretzako eta gure garaiko emakumeentzako horrelako omenaldi bat jasotzea.

A: Emakume langileei egindako omenaldi bat dela uste dut. Eta niri ere opari polita dela iruditzen zait. Halakoak omentzen dituzten kale gehiago egon beharko lirateke. Ez duzu uste?

"Gailetaren bat apurtzen zenean edo poltsa batean sartu eta langileei saltzen zitzaien edo dena txikitu eta birziklatu egiten zen"

ARANGOITI

Kutxazainik gabe

Bihotzaran Auzo Elkarteak deituta, elkarretaratzea egin zuten Arangoitiko bizilagunek maiatzaren 15ean Egileor plazan, auzoko banketxeen egoitzen itxieraren aurka. Maiatzaren 20an, osteguna, manifestazioa egin zuten Moyuako Caixabanken egoitzatik Kutxabanken egoitzara. Kexu dira banketxeen egoitzen itxierak aurrez aurre artatuak izateko aukera gabe utzi dituelako auzokideak, tartean mugikortasun arazoak dituztenak, izapideak Internet bidez egiteko zailtasunak dituztenak edo "beren profil sozioekonomikoagatik eten digitala euren larruan pairatzen duten pertsonak" direla. Areago, auzokide asko eskudirua ateratzeko beste auzo batera joatera behartuta daudela salatu dute, egun Kutxabanken kutxazain bakarra baino ez dagoelako Arangoitin. Gainera, Bihotzaranen ustez, "erabat ulertezina da erakunde horien onura ekonomikoak handitzen ari diren bitartean, sukurtsal horietako langileak kaleratzea eta aurrez aurreko arreta-zerbitzua prekarizatzea. Bereziki Kutxabank eta Caixa bezalako erakundeetan, aurrezki kutxa publikoak baitziren, erakunde publikoetatik eta aurreztaile txikietatik sortuak".

GAZTEAK

Bilboko Gazte Topaketak

Ekainaren 19an Bilboko Gazte Topaketak ospatuko dituzte Gu Ere Bagara Bilbo dinamikak bultztatuta. Bilboren eraldaketak lanean ari diren gazteek "elkarri begiratzeko, bizipenak partekatzeko eta etsaiaren aurka borrokak batzeko" eguna izango da. Beroketa gisara, ekainean zehar hainbat ekintza egingo dituzte auzo desberdinetan, baita Deustun ere. Horien artean, hainbat gai lantzeko aukera egongo da: auzo periferikoen problematikak, segurtasuna eta gazteen kriminalizazioa, planeta eta hiria espazio mugatu bezala, enpleguaren eta etxebizitzaren borroka gazte eremutik, jai herrikoiak… Ekainaren 19an bertan bi mahai-inguru nagusi egongo dira: bata, 'Gazte batasuna. Hiria eraldatzeko tresna', eta, bestea, 'Bilboko hiri-ereduaren aurrean gazte antolakuntza'. Horrez gain, gazte desobedientzia, sormena, ekonomia sozial eraldatzailea, oinarrizko behar materialen aldeko borroka, aisialdia, kirola eta kultura izango dira hizpide eta gozagarri.

KIROLA

Deusto KE mailaz igotzeko lehian

Deusto KE-k 2. B mailara (datorren urtean 2. RFEF izango dena) igotzeko kanporaketak jokatuko ditu. Maiatzaren 19an jokatu zuten ligako azken partida, eta Baskoniaren aurka 3-1 galdu arren, 42 punturekin bere taldeko bigarren sailkatu ziren. Aldizkari hau editatzeko unean, maiatzaren 23an lehenengo kanporaketa jokatzekotan da Deusto KE Urdulizen kontra. Irabaztekotan, hurrengo asteburuan jokatu beharko luke Sestao River edo Vitoria CDren aurka, eta irabaziz gero, ekainaren 5ean edo 6an izango litzateke finala. Kanporaketa osoan zehar Deustuk beti jokatu beharko du etxetik kanpo eta aurrera egiteko baitezpadakoa izango du partidak irabaztea, ez zaio berdintzearekin nahikoa izango.

Ekaina sormenez gainezka

Ekitaldiz eta ekintzaz josita ekingo diote ekainari Deustuarrek. Hasteko eta bat, ekainaren 3tik 6ra bitartean Gazte Sortzaileen Azoka egongo da Deustuko Gazte Lokalean, bai eta 7 Katu Gaztetxean ere. Bilbo inguruko gazte sortzaileei ahotsa emateko asmoz sortu ziren Lurrikara, Deustuko gazte sortzaileen plaza, Zazpi Katu Gaztetxeko gazte sortzaileen dinamika eta Kaska and Roll dinamika, eta abenduan bezala egingo dute ekain honetan ere. Hurrengo asteburuan ez da gutxiagorako izango. Ekainaren 12an, larunbata, Deustuko Gazte Eguna ospatuko dute 'Deustuko gazteok arrotz gure auzoan?' lelopean. Gazte Asanbladak egun osoko egitaraua antolatu du 'estralurtarrak' gaiaren inguruan. Besteak beste, ipuin kontalaria, Elorriaga mendira lasterketa, mahai ingurua, bazkaria, ginkana, kalejira eta kontzertuak egongo dira goizeko 10:00etatik 20:30ak tartean. Hurrengo egunean, ekainak 13, Berbaizu Euskara Elkarteak eta Deustuko Jai Batzordeak Bilboko Udalaren babesarekin umeentzako antzerki saio bat eta musika emanaldi bat antolatu dituzte Botikazar parkean. Goizean 'Meri, Mari, Lari' ikuskizuna egongo da eta 13:00etan Sutaten kontzertua.

Urtea: 2003

Txema Luzuriaga

Etxetxoa

Eraikin ezaguna, 'La Casita' edo Etxetxoa deitzen zioten. Deustuko Zubiaren ondoan zegoen, Lehendakari Agirre kaleko lehenengo zenbakian. Eraitsi aurreko garaian eskola-haurtzaindegia zen. Hori baino lehen, eskola frantsesa, 40ko hamarkadan Bilboko Alemaniar Ikastetxea Bigarren Mundu Gerra arte, eta azkenengo garaian Madre de Dios Ikastetxea izan zen.

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

Iragar zaitez
Prest!-en
tel. 94 447 10 42
bilbokoaldizkariak@gmail.com

AZALA
TATTOO STUDIO
Errondoko kalea z/g. Ibarrekolanda
tlf. 640 903 311
instagrama: @azala.tattoo

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303

Optica Avenida
Agirre Lehendakaria, 147
SAN INAZIO
Tfonoa: 94 475 11 24

ATXURI TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak
656 410 475
Plaza Celestino Mª del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 656 410 475
alonsoper@outlook.com

Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4

Toki Berri Taberna
Good vives!
Luzarra, 6 - Deustu
@tokiberritaberna

1924tik Deustun
Tintorería La Flor
Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu

artez
euskara zerbitzua
Probatu
herrizki.eus
ANDROID APP Google play
App Store

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net
Matxintxu
aek ■ euskaltegia
Matrikula zaitez!

Nailan
Parquetak - Barnizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

RONDOKO HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
94 475 5932
E.P.S. 425/97

Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

KM PERSIANAS CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL. persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elektrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23

Zelan igaro duzue ikasturtea?

Nerea Olaziregi

Lea
Deustuko Erribera

Ez zait gustatu maskara eraman behar izatea eta patioa asko gustatu zait, patioan beti gustura.

Urdax
Deustuko Erribera

Ondo pasatu dut. Guk ez dugu maskararik eraman behar izan eta gustura egon naiz.

Nahia
Deustuko Erribera

Besteak baino zailagoa izan da. Leihoak irekita egon direnez, atzekook hotza pasatu dugu. Gainera, irakasle batzuei ez zaie ondo ulertzen musukoarekin, beraz, zailagoa izan da dena.

Izaro
Deustuko Erribera

Ondo pasatu dut baina hotz handia egin du. Hala ere, ohitu gara azkenean eta ez dugu hain txarto pasatu.

Martin
Deustuko Erribera

Ondo, baina, apur bat itota sentitu naiz maskararekin.

Olatz
Deustuko Erribera

Ikasturte hasiera gogorra izan da: hidrogela, distantziak... baina gero lasaiago ibili gara.

>> HEZKUNTZA

INFORMAZIOA LANTZEN IKASTEN

Euskara irakasgaiaren baitan ariketa polita egin dute azken aste hauetan Deustuko Ikastolako 5. mailako ikasleek. Izan ere, PREST! aldizkaria oinarri hartuta aldizkari propioa sortzera animatu dira, Bilboko zein Deustuko gaien inguruan herritarrak informatzearen garrantziaz jabetuta.

Testua eta argazkiak: Nerea Cubillo Urkizu



Proiektua hobeto ezagutzeko Ikastolara hurbildu gara, eta, egileak ezagutzeaz gain, ikasleek aldizkariaren aurkezpena egin digute zuzenean. Lana egiteko bikoteka antolatu dira eta bakoitzak Bilborekin zein Deusturekin harremana duen gairen bat jorratu du. Elkarrizketak, informazio artikuluak, iritziak… denetarik biltzen du argitalpenak.

Eskolako lan honen berezitasunen artean, aipatzekoa da taldeka lan egiteko aukera eman diela, irakasleak bikoteka eta hirukoteka antolatu baititu. Hori dela eta, positiboki baloratu eta, aldi berean, dibertigarria izan dela aipatu dute, beste klasekideekin antolatzen eta egin beharrekoak haien artean banatzen ikasi dutelako.

Egungo egoera dela medio, taldeka lan egin duten arren, bete beharreko neurri guztiak kontuan hartu dituztela esan digu irakasleak, ordenagailu bana eta bestelako plataforma digital ezberdinak erabili baitituzte testuak taldeka idazteko.

Euskararen erabilera praktikara eramateak nolabaiteko aukera eman die ikasleei hizkuntza hobeto ezagutzeko eta, gainera, egindako lana aldizkari batean islatuta ikusteak asko poztu ditu. Azal eta guzti egin diote! Landutako gaien artean, besteak beste, Athletic, Deustuko Zubia, Deusto Futbol taldea edota Puppy aurki daitezke.

Ezagutu dituzten informazio generoen artean gehien gustatu zaiena elkarrizketa izan da, zintzoak izanda, artikulu ohikoetan baino informazio gutxiago bilatu behar izan dutelako. Elkarrizketatuei dagokionez, batez ere lagunak eta senideak galdekatu dituztela azaldu digute. Elkarrizketetan, gaiari buruz galdetu behar dela eta, gainera, bakoitzaren hitzak literalki plazaratu behar dituztela ikasi dute, nahiz eta emandako erantzuna gustuko ez izan. Elkarrizketatuen hitzak ordenagailuz jaso dituzte.

Bestalde, Bilboko espazio sinbolikoen inguruko informazio artikuluak topatu ditzakegu aldizkari honetan. Testuak landu dituzten ikasleen arabera, informazioa bilatzea izan da gehien kostatu zaiena, baina, horri esker, hobeto ezagutzen dituzte orain leku eta monumentu ezberdinak. Honekin batera, ikasi dute publikatu nahi dituzten argazkiak ezin dituztela edozein iturritik hartu eta, hartzekotan, egilea aipatzea beharrezkoa dela.

PREST! Deustualdeko aldizkaria oinarri hartuta ekin diote lanari, eta tokiko informazioa lantzen duten proiektuak beharrekotzat jo dituzte ikasle askok, herritarrek haien inguruan gertatzen denaren berri izan dezaten.

http://sarekada



Literaturari buruz sarean dagoen guztia

QR kode honetan topatu dezakezuen bideoan, Imanol Epeldek errepaso bikaina egiten dio sarean aurki daitekeen euskal literaturako baliabide mordorari.

- Erreferentziazko katedrala: Armiarma.
- Albisteekin jakitun egoteko: Hitzen Uberan eta 111 akademia.
- Entzunezko pasarteak: Xerezaderen Artxiboa podcasta, Etxegiroan ipuin eta audio-liburuak, eta Aittu.eus, idazleen ahotsa entzuteko, gehi Etxepare Rap, Epeldek berak rap bihurtutako literatura klasikoa.
- Liburu elektronikoaren alorrean: Booktegieta Susaren katalogoa.
- Telebistan: Artefaktua, Nahieran-en aurki daitezkeen Sautrela zaharrak ahaztu gabe.
- Ekimen sustatzaileak: Idazleak ikastetxeetan programa, Galtzagorri elkartearen ideiak, Urruzunotarrakgazteen idazlanak sustatzeko, eta ELK kanona Nafarroatik.

Diseinua: Iñaki Arana

2021EKO MIKROIPUIN UZTA

Hemen dituzue Euskararen Unibertsoa egitasmoak antolatutako mikroipuin lehiaketaren irabazleak. Antolatzaileok gure esker ona adierazi nahi diegu epaimahaia osatu duten Haizea Uriagereka, Marta Zumeta eta Mari Luz Arranzi mikroipuinak irakurri, baloratu eta sariak erabakitzen egindako lan mardulagatik, baita Berta Alcalderi ere ipuin zoragarria idazteagatik. Azalaren diseinua eta diplomak Iñaki Aranak egin ditu. Berari ere, zinez mila esker eta zorionak, azal eta kontrazal ederrak egin dituelako.

IRLA MAGIKOA

Bazen behin, mutil bat pilotua izan nahi zuena. Hori dela eta, Hawaiiko unibertsitatera joan zen ikastera eta pilotu- titulua lortu zuen. Baina, zoritxarrez, bere lehenengo bidaian, istripu bat izan zuen eta hegazkina eta mutilak itsasora jauzi ziren.

Uretan zegoela, sirena batek lagundu zion eta irla batera eraman zuen. Uharte horretan, egunak pasatu zituzten mutilak eta sirenak elkarrekin bizitzen: zuhaitzetatik janaria hartzen zuten eta kobazulo batean bizi ziren. Itsasontzi bat egiten saiatu ziren, baina beti apurtzen eta urperatzen zitzaien. Hainbeste egun pasatu zituzten uhartean, zein mutila eta sirena elkar maitemindu ziren.

Egun batean, helikoptero bat irlatik pasatu zen, mutila eta sirena ikusi eta erreskatatu zituzten. Hauek Hawaiira eraman zituzten bueltan. Behin Hawaiin egun batzuk egonda, sirenak sirena izateari utzi nahi zion eta hankak izatearekin amesten zuen. Eta hainbeste amestu zuen eta hainbeste elkar maite ziren, non, egun batean, sirenari buztana desagertu eta bi hanka agertu zitzaizkion. Eta handik aurrera, oso pozik eta alai bizi ziren biak batera.

RYAN DANILO LACAYO
L.H.5 Deustuko Ikastetxea

TODO SALDRÁ BIEN

ekainaren 24tik
uztailaren 11ra

www.pabellon6.org

ADRIÁN GARCÍA
D.B.H.2 Deustuko Ikastetxea

NEKEETAN IRRIA EZPAINETAN

Bazen behin puntu triste bat esaldien amaieran inork ez zuelako erabiltzen. Handik koma bat pasatzen zen astiro, burumakur. Puntuak zer gertatzen zitzaion galdetu zion eta komak triste zegoela esan zion inork ez zuelako idaztean erabiltzen. Puntuak bere arazoarekin lagunduko ziola zin egin zion. Puntua eta koma elkarrekin zebiltzan, beraien arazoa nola konponduko zuten pentsatzen. Handik gutxira, banku batean hasperen egiten ari zen parentesi batekin topatu ziren. Orduan, puntuak eta komak ea zer gertatzen zitzaion galdetu zioten. Parentesiak bera ere ez zutela ezertarako erabiltzen azaldu zien eta asko aspertzen zela ezer egin gabe.

Parentesia, puntua eta komarekin joan zen. Geroago, izkina batean negarrez zegoen gidoi txiki batekin topo egin zuten. Lagunak laguntzeko prest zeuden. Gidoia oso txikia zenez, inork ez zion jaramonik egiten. Azkenean lau lagunek ideia bat izan zuten: Puntua komaren gainean igo eta gidoiaren atzean jarri ziren. Amaitzeko, parentesia bere lagun guztien aurrean kokatu zen aurpegi alai bat osatuz ;-)

ITXASO RODRÍGUEZ
D.B.H.3 Deustuko Ikastola

MAIALEN, NIRE LAGUNA

Lagun mina dut Maialen. Klase guztiak bera maite du: ederra, adimentsua, jatorra, baikorra eta, gainera, nire etxera etortzen denean, ondo pasatzen dugu elkarrekin. Benetan da dibertigarria.

Haren etxera ere joaten naiz gaua pasatzera eta hango familiak ondo tratatzen nau. Maialen barik ez nuke lagunik izango, egia da klaseko batzuekin ondo konpontzen naizela, baina Maialen nire txikitako betiko laguna da.

Askotan, ikastola zaila da niretzat: bakarrik sentitzen naiz atsedenaldian, nitaz barre egiten dute, hamaiketakoa kentzen didate eta askoz gauza okerragoak.

Gaur, etxera ailegatu naizenean negarrez hasi naiz, arratsalde guztietan bezala. Gurasoei kontatu diet gaur gertatutakoa: - Klasean, paperak pasatzen ibili dira barrezka niri begira. Patiora irten direnean, paper bat zabaldu dut eta beti bezala, Maialenen letra ezagutu dut.

IRATI LARRAÑAGA ETXEBARRI
BATXILERGO 1 Botikazar BHI

ZORTZI SEGUNDO

Zortzi segundo eta akabo. Gustatzen zait haizea, gustatzen zait neguko haizea nola sartzen zaidan erraietaraino, uste baino gehiago. Zazpi segundo. Hemendik txiki ikusten da mundua, pertsonak inurrien antzekoak dira. Baina zergatia ez da txikia. Ezin da izan, ez baitu damuarentzat tokirik uzten. Sei segundo. Apurka-apurka inurriak handitzen ari dira, dena handiago, hurbilago. Bost segundo. Haizeak petrolio zaporea du eta ia izerdi kiratsa antzeman diezaieket inurriei, zigarro eta lurrinek osatzen duten desorekaren baitan. Lau segundo. Hamaika aldiz irudikatu dut une hau, baina uste baino azkarragoa izan da nire azken bidaia, bidaia bertikala, teilatutik zorurakoa. Hiru segundo. Bi. Bat. Asfaltoa.

PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

Tortillak eta tartak

Ibarrekolandabidea kaleko 17. zenbakira gerturatu gara maiatzean. Enekuriko biribilgunean dagoen tabernan hartu gaitu Mikelek, egiten dituen tarta eta tortillak harro erakusteko.

Zailtasun maila: ertaina

Egiteko denbora: 6 tortilla ordu eta erdian egiten ditu, lau tarta egiteko 4 edo 5 ordu behar izaten ditu

Prezioa: tortilla pintxoa 1,60€ eta osoa 14€; tarta anoa 3€ eta osoa 25€

Berezitasuna: bai tortillak eta bai tartak zukutsuak egiten ditu, ez sikuak.

Kontu batzuk

Bi urte eta erdi daramatza Mikelek Biok tabernarekin eta tortillak eta tartak izan dira beti bere berezitasun nabarmenak. Askotarikoak egiten ditu, eta deigarriak dira oso, handiak eta koloretsuak. Urdaiazpiko iberikodun tortilla da gehien eskatzen diotena; kuiazko eta azenariozko tartak gomendatu dizkigu. Horrez gain, gosariak, bokatak eta tortak ematen dituzte, urdaiazpiko eta tomatezkoak edo ahuakate eta tomatezkoak.

BIOK DEUSTO
Ibarrekolandabidea 17

Astelehenik asteazkenera: 06:00-16:30
Ostegun eta ostiraletan 06:00-22:00

@biokdeusto
Mikel: 648 606 201

Zelan egin?

Mikelek ez dizkigu bere sekretuak kontatu nahi izan. Hori bai, gakoa kozinatzeko eran dagoela aitortu digu, ez osagaietan. Mota askotako tortillak egiten ditu: piperminarekin, urdaiazpikoarekin eta gaztarekin, begetala, txorizoduna, piperradarekin, oreganoarekin eta gaztarekin edo intxaurrekin eta tipula karamelizatuarekin. Tartak ere askotarikoak prestatzen ditu: kuiazkoa, azenariozkoa, txokolate eta Guinnessduna, txokolate eta esne-gozoduna… Sekretua asmatzeko bertatratzea duzue!

Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!
Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan…

ZURE PINTXO ONENAK GUREKIN KONPARTITZEKO

Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN

kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa

HODEI TORRES FERNANDEZ
Ikusi makusi

XAMANA ANIMAZIOAREN MAGIA BALIOTUZ

Alma da *Undone* telesaioaren protagonista, emakume gazte bat, erdi gorra eta txikia zenean bere aita galdutakoa. Barne zalantzez, depresioaz eta gizarte ereduen nekeaz hitz egingo digu lehenengo pertsonan, bere bizitzan eta kezketan murgilaraziz. Batbatean bere aitarekin topo egingo du eta hor hasiko da animazioaren magia, errealitatearen mugak apurtzeko.

Denborarik existitzen ez den espazio batean murgilduko gara, dimentsioek talka egingo dute eta irekitako zauriek inoiz baino min handiagoa ematen duten munduan jarraituko dugu protagonista. Iragana itzuli da -bere aita-, eta Almari gogoraraziko dio bere oraina etorkizuna bezain zalantzazkoa dela, eta bere minak eta akatsak, ahalmen edo magia bihurtu daitezkeela. Eskizofrenia edo xamanismoaren arteko erlazioa arakatzen du kontakizunak, gure ingurukoek -eta askotan guk ere- zalantzan jartzen dituzten mugak bilatu eta suntsitzen dituelako.

Arlo teknikoan, aipatu behar dugu rotoskopia teknika erabili dela; hau da, lehenengo aktoreekin grabatu, eta gero horren gainean marraztuz animazio bihurtu. Ez da asmakizun berria, baina gutxitan erabili da telesaioetan. Gainera, olioarekin margotutako paisaiak sartu dituzte, eta horrek ematen dizkion testura eta itxura bereziak ikaragarriak dira.

Almaren bizipenak, kezkak eta ametsak jarraituz animazioaren bitartez momentu benetan eroak eta magikoak bizi daitezke.



MIKEL AIARTZAGUENA AGIRREBEITIA
Elorri bertso-eskolako kidea

Doinua: ETAren su etenetik

Ez da nahi bezain polita
begi parean duguna
etxerik ez, zein langabe
orain zein gero iluna
eta gazteon aurkako
moralitate astuna
nor da Osakidetzako
desfaseen arduraduna?
Baina gazteak gabiltza
egiten lan bat txukuna
ta bide hortan data bat
ehaztu ezin duzuna
ekainaren 12ko
Deustuko Gazte Eguna

Gure kaleetan zehar
sentitzen gara arraro
urrunetik datozenak
baino estralurtarrago
Deustun emantzipatzea
Saturnon baino zailago
apustu etxeen gezurraz
des-ilusionatuago
eta plazaren tokian
autopistatxo bat, klaro!
Gurea dena hartzeko
batzeko beharra dago
egun bat izan dadila
egun bat baino gehiago

PREST! 219an Iñaki Ortiz Viota margolari saninazioztarraren inguruko erreportajea argitaratu genuen. **Ostean egindako koadro batzuen irudiak bidali dizkigu, ea honako hau non den asmatzen duzuen...**

Irudia: **Iñaki Ortiz Viota 'Orviot'**

orviot2016@gmail.com **Iñaki Orviot** **inakiorviot**

EGIN ZAITEZ BABESLE!

Laster abiatuko dugu 2021eko PREST! babesle kanpaina. Zuetako askok ez duzue inolako diru-ekarpenik egiten eta horrela jarraituz gero, zaila izango da proiektuari luzaroan eustea. PREST! hilero etxean jasotzen jarraitu nahi baduzu, mesedez, izan zaitez babesle. Urtean 25 euroren truke beste 20 urte irauten lagunduko diguzu, eta 20. urteurrenaren lamina jasoko duzu opari!

Idatzi mezu bat helbide honetara: prestharpide@gmail.com

DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

Prest!